

## **AZKUNA ZENTROAK BERE ATEAK IREKIKO DITU ZENTROAN GARATZEN DIREN PROZESU ARTISTIKOAK PARTEKATZEKO**

- Hogeita hamar sortzailek baino gehiagok dute zentroarekin lotura programazioaren ildoen inguruko ikerketa, sormena eta ekoizpena sustatzen duten ekimenen bidez.
- Publikoarentzako irekia izango den jardunaldia irailaren 16an izango da, 16:30etik aurrera. Goizean artista, entitate laguntzaile eta beste kultura- eta arte-gune batzuetako ordezkariekin topaketa profesionala egingo da
- Aurtengo jardunaldian, nabarmentzekoa da azken hilabeteetan Babestu - Sorkuntza garaikideari laguntzeko programa berezia deialdiaren esparruan lan egin duten artisten proiektuen aurkezpena.
- Sra. Polaroiska, Azkuna Zentroko AZ artista kideek, euren azken liburuaren irakurketa 6 ahotsetara eramango dute. “Cuerpos, deseos y unas almendritas. Una película de Sra. Polaroiska” Gutun Zuria - Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdiaren aurreko edizioan aurkeztu zen.
- Jardunaldia amaitzeko Tractora artista-kooperatibaren #Kinu5 saioa egingo da, Kolektibo Egoiliarren Programaren barruan.

(*Bilbon, 2021eko irailaren 13an*). Azkuna Zentroak aurten ere Sormen Artistikorako Atea Irekiak Jardunaldia egingo du. Bertan, gaur egun bere proiektuak garatzen dituzten artistekin partekatu eta esperimentatu ahal izango du jendeak, zentroaren sorkuntza artistikoari laguntzeko programen bidez. Ostegun honetan izango da, irailaren 16an, 16:30etik aurrera.

Hogeita hamar sortzailek baino gehiagok dute zentroarekin lotura programazioaren ildoen inguruko ikerketa, sormena eta ekoizpena sustatzen duten ekimenen bidez: zuzeneko arteak, kultura digitalak, zinema eta ikus-entzunezkoak, literatura eta arte bisualak, publikoei gerturatuko zaizkie, nahiz egindako obren bidez nahiz sortzeko prozesuen bidez.

Aurtengo jardunaldian azken hilabeteetan Babestu. Sorkuntza garaikideari laguntzeko programa berezian lan egin duten artisten proiektuen aurkezpena nabarmentzen da. 2020an aktibatu zen deialdi hori Covid-19ak erasandako prozesuen eta ikerketen garapena bultzatzeko. Irati **Inoriza, Maider Aldasoro, Karlos Martinez eta Iker Vázquez**en lanak egongo dira ikusgai urriaren 10era arte Zentroko zenbait gunetan. Babestuko egoiliarak dira, baita ere, **Miriam Isasi eta Borja Crespo & Raquel Meyers**, eta hauek irailaren 16an irekiko dituzte beraien guneen ateak Mediateka BBKn, sormen-prozesuak aurkeztu eta partekatzeko. Gainera, Mediatekan bisita gidatuak egingo dira, ekipamendu horretan dauden espazioak eta baliabideak eta egiten diren jarduerak ezagutzeko.

Azkuna Zentroari atxikitako **Isabel de Naverán, Laida Lertxundi eta Aimar Arriola** artisten eta ikertzaileen lan prozesuak ikusi ahal izango dira Ate Irekietan Lantegia. Ideien laborategian dituzten guneean. Gainera, Sra. Polaroiskak (Alaitz Arenzana & María Ibarretxe), Azkuna Zentroko artista AZ kideek, “Gorputzak, desirak eta almendratxo batzuk. Sra. Polaroiskaren film bat” liburuaren irakurketa egingo dute sei ahotsetara. Liburua Gutun Zuria - Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdiaren aurreko edizioan aurkeztu zen.



Frankismoaren diktaduran hazitako 70 urtetik gorako sei emakumeren unibertso pertsonal, sentzual eta afektiboan zeharreko bidaia. Haien kontakizunen bidez, oso leku interesgarri eta ezezagunetan murgilduko gara, hala nola sei emakume horien bizitzetan eta fantasietan.

Egunean zehar, artista eta sortzaileek dendAZ - This is Basque Design-en proposatzen dituzten diseinuak ere ikusi ahal izango dira.

Bestalde, nahi dutenek Ana Laura Aláezen Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío erakusketarako bisita komentatueta izena eman ahal izango dute.

Jardunaldia amaitzeko Tractora artista-kooperatibaren #Kinu5 saioa egingo da, Kolektibo Egoiliarren Programaren barruan.

Ostegunean bertan, hilak 16, goizean, zentroak topaketa profesionala prestatu du artistekin, erakunde laguntzaileekin eta beste kultura- eta arte-gune batzuetako ordezkariekin.



## EGITARAUA

### 17.00-18:00

Karlos Martinez (Foyer Auditorioa)

### 18:00-20:00

Irati Inoriza (Bat espazioa)

Isabel de Naveran (Lab1)

Maidier Aldasoro (Lab2)

Aimar Arriola + Manu Arregui (Lab3)

Miriam Isasi Galeria Mediateka

Borja Crespo & Raquel Meyers (Mediateka)

Iker Vázquez (Amphytrion Aretoa)

Tipi (Iparragirre Aretoa)

Diego Sologuren (Lantegia 1, sarrera)

Laida Lertxundi (Auditorioa)

José Ramón Ais (Terraza)

Nestor Lizalde Terraza

Elssie Ansareo (Atrioa)

### 18:00

MEDIATEKA BBK · Bisita gidatuak (Mediateka)

### 18:00-20:00

dendAZ (Atrioa)

### 18:00-19:00

ANA LAURA ALÁEZ · Todos Los conciertos, todas las noches, todo vacío.  
Bisita gidatuak erakusketan zehar (erakusketa-aretoa)

### 19:30-20:30

SRA POLAROISKA. ALAITZ ARENZANA & MARÍA IBARRETXE.

“Cuerpos, deseos y unas almendritas. Una película de Sra. Polaroida (Atrio)  
liburuaren hainbat ahotsetara irakurketa

### 19:30-20:30

TRACTORA KOOP. E. Kinu #5 Imogen Stidworthy (Bastida Aretoa)

## ARTISTAK

Aurtengo jardunaldian, nabarmentzekoa da azken hilabeteetan Babestu - Sorkuntza garaikideari laguntzeko programa berezia deialdiaren esparruan lan egin duten artisten proiektuen aurkezpena. Irati Inoriza, Maider Aldasoro, Karlos Martinez eta Iker Vázquez dira, urriaren 10era arte beren proposamenak Zentroko hainbat gunetan aktibatuko dituztenak.

**Irati Inorizak** "*Nadie se baña dos veces en el mismo río, sino en el pantano mismo*" proiektua aurkeztuko du

**Maider Aldasorok** "Aurrera Goxo" proiektua aurkeztuko du.

**Karlos Martinezek** "*PLAN K. GUT*" proiektua aurkeztuko du.

**Iker Vázquezek** "Az Reality Lab" proiektua aurkeztuko du.

**Miriam Isasik** "*Resina, brea y glicerina*" proiektua aurkeztuko du.

**Isabel de Naverán.** Azkuna Zentroko Ikertzaile AZ Kidea, 2021etik. Ikertzaile AZ-kide gisa, *La ola en la mente* proiektua garatuko du, idazketa somatikoan oinarritua, entzuteko eta kuratoretzako modu gisa.

**Laida Lertxundi** Azkuna Zentroko AZ Kidea, 2021etatik 2023ra. Laida Lertxundi, Azkuna Zentroa AZ kidea, "8 *encuentros* " proiektuarekin jarraitzen du, zortzi tailer eta elkarlaneko errodaje dituena, eta 16 mm-ko obra bat izango da emaitza. Proiektu honen helburua erakunde akademikoen mugen kanpoan esperimentu pedagogikoa sortzea da.



**Aimar Arriola** Azkuna Zentroko Ikertzaile AZ Kidea. Aimar Arriolak “*Un deseo de forma*” proiektuarekin jarraitzen du, Proiektua 2020ko udazkenean hasi zen, Zentroko programazioaren barruan queer-kuir ikuspegiaren eta artearen presentzia areagotuko zuen lan-ildo propioa garatzeko gonbidapenari erantzunez.

**TRACTORA KOOP. E.** Azkuna Zentroko AZ kidea den artisten kooperatiba. Tractora Koop. E-k Imogen Stidworthy-ren (Londres, 1963) artistaren lanen aukeraketa aurkezten du bere bostgarren saioan, soinu obrak, pelikulak eta multimedia instalakuntzak.

**Sra. Polaroiskak,** Alaitz Arenzanak eta María Ibarretxek eraturia, erreferenteak sortzearen eta adineko emakumeen ahalduntzearen inguruko sortze-prozesuan aurrera jarraituko dute. Euren azken liburuaren irakurketa 6 ahotsetara aurkeztuko dute. “*Cuerpos, deseos y unas almendritas. Una película de Sra. Polaroiska*” Gutun Zuria - Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdiaren aurreko edizioan aurkeztu zen.